



2023-2024 IKASTURTEKO BEKAK

Uztailaren 17ean argitaratu da EHAAn **2023-2024 ikasturterako unibertsitateaz kanpoko ikasketak egiteko beka, laguntza eta diru-laguntzen deialdia**. Eskabideak aurkezteko **epea 2023ko uztailaren 18tik irailaren 30era bitartekoa izango da**, biak barne

Eskabideak egiteko epea ireki denez, honako hau jakinarazten da:

Deialdi honi dagokion informazioa webgune honetan eskuratu ahal izango da:

<https://www.euskadi.eus/unibertsitateaz-kanpoko-bekak/>

2022-2023 ikasturtean beka edo laguntzaren onuradun izan ziren eta matrikula kudeatzeko aplikazioan sartutako irakaskuntzetan matrikulatuta dauden ikasleei jada betetako eskabidea-zirriborria SMS eta/edo posta elektronikoa bidez eskuratzeko aukera emango zaie.

Eskabidea **telematikoki aurkeztea erabakitzen baduzu**, SMS eta/edo Email bidez emandako Interneteko helbidea erabili ahal izango duzu, eta dagokion ikaslearen jaiotze-data sartu eta “proposamena deskargatu” botoia sakatu. Horrela, eskabidearen zirriborria lortuko duzu, eta honela aurkez dezakezu:

1. a) zirriborroan emandako kodea (aukera: “Egiaztapen-kodea duen telematikoa”)
2. b) ziurtagiri elektronikoa bat (“telematikoa ziurtagiri elektronikoarekin” aukera)
3. c) Eskabide-orria inprimatu, sinatu eta ikastetxera joanda (“ikastetxean bertan” aukera)



Eskatzaileak **ikastetxean bertan aurkeztea aukeratzen badu**, eskabidea sinatu eta ikastetxean entregatu, eta bertan erregistratuko da eta egiaztagiria emango zaio. Egiaztagiri hori gorde egin beharko da, edozein erreklamazio izapidetu behar izanez gero aurkeztu ahal izateko.

Eskabidea paperan ere jaso ahal izango da ikastetxean, aurreko ikasturteetan bezala.

Beka eskabide orria eta deialdiaren inguruko informazioa irailaren 8-an banatuko zaie ikasleei.

Beka **eskaera aurrez aurre ikastetxean izapidetzeko** data eta ordutegiak hauek izango direla jakinarazi nahi diegu familiei:

Irailaren 18tik irailaren 29 arte, biak barne, 09:00-13:30 bitartean (Idazkaritzan)

Ez da hitzordua eskatu behar baina eskabide orria ekarri behar da zuzenketak eginda eta beka eskaerari gehitu nahi zaion dokumentazioa.